

## MagialdiArabaren VII. edizioak ilusioa eramango du lurraldeko 16 herritara

*Jaialdiak berriz ere prestakuntza, sorkuntza eta zabalkundea bateratuko ditu, abuztuaren 28tik irailaren 12ra, eta Gasteizen irailaren 13an abiatuko den eta 19ra bitartean gauzatuko den XXXIII. Magialdiaren atarikoak izango da*

**Gasteiz, 2021eko uztailaren 29a.** MagialdiArabaren VII. edizioak ilusioa eramango du lurraldeko 16 herritara, abuztuaren 28tik irailaren 12ra bitartean. Magia jaialdiak berriz ere prestakuntza, sorkuntza eta zabalkundea bateratuko ditu, eta Gasteizen irailaren 13an abiatuko den eta 19ra bitartean gauzatuko den XXXIII. Magialdiaren atarikoak izango da.

Gaur aurkeztu dute Kultura eta Kiroleko foru diputatu Ana del Valek, Vital Fundazioko zuzendari Arantxa Ibañez de Opacuak, eta jaialdiko zuzendari Jose Ángel Suárezek.

Beraz, MagialdiAraba Arabako 16 herritan egingo da, haurrentzako eta helduentzako magia lantegiak, hurbileko magia animazioa eta magia ekitaldiak barne hartzen dituen programa batekin, Hodei Magoa, Tor Magoa, Asier Kidam eta Imanol Ituiño artisten eskutik.

7 urtetik gorako haurrentzako magia lantegiak euskaraz izango dira, eta gehienez ere 20 adingabek osaturiko taldeentzat, 45 minutuko txandetan.

MagialdiAraba proiektua Arabako Foru Aldundiko Kultura eta Kirol Sailak eta Vital Fundazioak finantzatzen dute, parte hartzen duten udalen laguntzarekin. Argibide gehiago hemen: [www.magialdia.com/](http://www.magialdia.com/).

### PROGRAMA:

GUARDIA: abuztuak 28  
AGURAIN: abuztuak 29  
DONE BIKENDI: abuztuak 30  
MARKIZ: abuztuak 31  
ARAI: irailak 1  
MAEZTU: irailak 2  
SOBRON: irailak 3  
ZURBAO: irailak 4  
AMETZAGA: irailak 5  
KUARTANGO: irailak 6  
LEGUTIO: irailak 7  
ESPEJO: irailak 8  
LABRAZA: irailak 9  
POBES: irailak 10  
BERANTEVILLA: irailak 11  
LARREA: irailak 12